

Gradu Amaierako Lana

Komunitate piriniotar baten hastapenetan: Zaraitzu haraneko tokiko
gizartea XI. mendean

Egilea: Izei Permach Agirre

Tutorea: Juan José Larrea Conde

Historiako Gradua, 2020-2021

Filologia eta Historia Saila

Gasteiz

Laburpena

Lan honen helburua XI. mendeko Zaraitzu haraneko gizarte arkitektura aztertzea izan da. Asmo horrekin Leireko Becerro Antiguu izeneko kartulariora jo dugu. Hain zuzen, bertako agiriak jasota daude Ángel J. Martín Duquek 1983an egindako Leireko dokumentazioaren edizioan. Horrez gain, kartularioan bertan bada haranari dagokion agiri multzo bat, monjeek identifikatutako harreman-sare bat adierazten diguna. Bertakoak dira, beraz, gure bilduma osatu duten hamar agiriak, funtsean, bi errege dohaintza salbuetsita¹, XI. mendeko Zaraitzuri dagozkion guztiak.

Abiapuntu gisa, agiri horietako bat hartu dugu, 1072. urtekoa, autore ezberdinek garaiko gizarte egitura azaltzeko erabili izan dutena. Gure xedea dokumentuan biltzen den lekuko eta bermeen zerrendak ezkututzen duen tokiko gizartean sakontzea izan da. Izan ere, sarritan aipatu izan da haran-mailako antolaketaren harira, iparraldeko herrien nagusitasuna eta hegoaldekoen bigarren mailako rola. Hala ere, egindako ikerketaren bidez gai izan gara komunitatearen bihotza osatzen zuen eremua zehazteko. Hortaz, Eskaroze, Jaurrieta, Orontze eta Espartza dira nabarmendu ditzakegun lau herriak, agirietako kideen presentzia esparru horretan zehar hedatzen baitzen.

1072ko kideak haraneko pertsonaiarik garrantzitsuenak ziren baieztapenetik haratago joanda, nagusigo sozialaren osagaiak zeintzuk ziren zehaztu dugu: 1) Leirek interes-gune gisa identifikatu izana. 2) Monasterioen inguruan antolatzeko joera. 3) Monasterioek, sarobeek eta gainerako jabetzek osatutako ondarea. 4) Dohaintzen bidez Leireri lotzeko ohitura. 5) Ordezkaritza lanak eta kanpo eragileekiko loturak, dohaintzen eta salerosketen bidez sustatuak. 6) Ondorengotzari dagokionez, ondarearen zatiketa ekiditeko estrategien zantzuak. Berezitasuna da, ordea, agirietako gizabanakoen gehiengoa, hegoaldean ez bezala, ez zela jaun gisa izendatzen. Era berean, aipagarria da, tokiko elite horren garrantzia ez zela mugatzen haranaren esparrura, nahiz eta bitartekari rola bereziki nabarmena izan goi-mendietako baliabideei zegozkien auzietan.

Oro har, egindako ikerketari esker, Zaraitzu haraneko gizarte antolaketaren eta nagusigo sozialaren erretratu zehatzago bat osatu ahal izan dugu, tokiko jabetzak eta harremanak islatzen dituen. Bestalde, ikerketa osatzeko, nabarmendutako ezaugarri nagusiak Nafarroa erdialdeko eta IX. mendeko Britainiako ereduarekin alderatu ditugu.

¹ DML 28 eta DML 114 (DML: Documentación Medieval de Leire).

Aurkibidea

1. Sarrera.....	4
2. Zaraitzu harana.....	5
2.1. Zaraitzu haranaren nortasunaren harira.....	5
2.1. Zaraitzu harana iturrietan.....	7
3. DML 97: 1072ko agerraldi kolektiboa.....	8
4. Iturriak: agiri multzoaren osaketa.....	9
5. Eragileak eta taldeak.....	14
5.1. DML 26 (1034): jaun Blasco Asnari.....	14
5.2. DML 36, 55, 64, 58 (1046-1058): Santa Maria monasterioko taldea.....	15
5.3. DML 84 (1068): Jaurrietako San Joanen taldea.....	17
6. Aurreko taldeen lekua 1072ko ekitaldian.....	19
7. Nagusigo soziala eta horren oinarriak.....	21
7.1. Leireren pertzepzioa.....	21
7.2. Ondarea.....	22
7.3. Ordezkaritza.....	22
7.4. Monasterioak.....	23
7.5. Ondorengotza estrategiak.....	23
7.6. Dohaintzak.....	24
8. Kanpo erduekiko alderaketa.....	25
8.1. Nafarroa erdialdea: Aizpurgiko Arroila.....	25
8.2. Komunitate mailako eliz-familiak: Britainiako eredia.....	28
9. Irudien aurkibidea.....	32
10. Bibliografia.....	33
11. Webgrafia.....	35

1. Sarrera

Lan honen helburua Zaraitzu haraneko XI. mendeko gizartearen azterketa egitea da. Berez, burututako ikerketa asmo zabalago baten lehenengo urratsa da. Epe luzera, Behe Erdi Aroan zehar eraiki zen ideologia berdinzalearen sorrera ezagutzea da asmoa. Dena den, kontuan hartuta lehen azterketa honetarako dugun denbora mugatua, mito igualitarioaren oinarrian dagoen gizarte ereduaren hastapenetara jo dugu. Era berean, eremu jakin bat zehaztu dugu, Zaraitzu harana, alegia, 1469. urtean kaparetasun unibertsala eskuratu zuena. Kontziente izanik prozesu luzea izan zela zaraitzuarrak ustezko berdintasun hori erdiestera eraman zituena, XI. mendea izan da gure ardatza. Garai horretako iturrien logikan sakondu dugu, haraneko egitura sozioekonomikoa ezagutzeko asmoz.

Bestalde, bada ere Zaraitzu harana aukeratu izateko beste arrazoi bat. Izan ere, jada X. mendetik aurrera bada haranaren inguruko dokumentazioa, Leireko artxiboko Becerro Antiguu izeneko kartulariotik datorrena. Gainera, aztertutako agiriak jasota daude Ángel J. Martín Duquek 1983an egindako kartularioaren edizioan², eta zerrendatuta autore berarena den Zaraitzuren inguruko monografia klasikoan (1963)³. Beraz, haren erreferentziak baliatu ditugu bilduma dokumentala osatu ahal izateko.

Hain zuzen, lanaren abiapuntu gisa agiri horietako bat hartu dugu, 1072. urtekoa, Zaraitzu haraneko gizarte arkitektura aztertzeko erabili izan dena⁴. Dokumentu horretan jasotzen den haraneko biztanleen zerrendatik haratago, tokiko gizartea aztertzen eta bertako kideen izaera ezagutzen saiatu gara. Orokorrean, helburua gizarte antolaketaren eta nagusigo sozialaren erretratu bat gauzatzea izan da, tokiko jabetzak eta harremanak islatzen dituen.

Bestalde, gure ikerketa osatzeko, Nafarroa erdialdearekiko alderaketa ere egin dugu, haranaren hegoaldean kokatzen den Aizpurgiko Arroileko agirien azterketaren bidez. Orobat, Britainiako IX. mendeko eliz-familiak ikertu ditugu, Wendy Daviesen (1998) lanari jarraiki. Horri esker, haraneko gizarte egituraketan nagusitzen diren ezaugarri nagusiak zehaztasun handiagoz aurkeztu ditugu. Amaitzeko, ondorio batzuk plazaratu ditugu.

² *Documentación Medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Iruña, 1983. Hori horrela, DML da testuan zehar erabilitako sigla.

³ Dena den, baliatutako edizioa 2002. urtekoa da.

⁴ DML 97.

2. Zaraitzu harana

Zaraitzu Nafarroaren ipar-ekialdean kokatzen den haran piriniotarra da, izen bereko ibaiak zeharkatzen duena. Iparraldean Zuberoa du, ekialdean Erronkari harana, mendebaldean Aezkoa eta hegoaldean Nabaskozeko Almiradioa. Azalera osoa 32.642 hektareakoa da, inguratzen duten mendiak kontuan hartuz gero. Nafarroako Estadistika Institutuaren (2020) arabera, 2020an haran osoko biztanleria 1348 kidek osatzen zuten.

Administratiboki, Zaraitzu Haraneko Unibertsitatea hamalau herrik osatzen dute. Historikoki hamabost izan dira, baina egunean Erripalda baserri bat baino ez da. Sei udalerrri sinpletan (Itzaltzu, Otsagabia, Eskaroze, Jaurrieta, Orontze eta Espartza) eta hiru konposatutan (Sartze Ibiltzietarekin; Gorza Igarirekin; eta Galoze Izize, Itzalle eta Uskartzerekin) banatzen da. Gobernu organoa haraneko Batzorde Orokorra da, beste hainbat alorren artean, herri-ondasunen kudeaketaz arduratzen dena (Gran Enciclopedia de Navarra, n.d.).

2.1. Zaraitzu haranaren nortasunaren harira

Zaraitzuren inguruko lehen berriak guztiz zehatzak ez diren arren, Martín Duquek VIII. mendearen amaieran kokatzen ditu komunitatearen hastapenak. Hori horrela, ordutik IX. mendearen erdialdera edo bukaerara arte izandako autonomia politikoa azpimarratzen du, izan ere, ondoren, Iruñako erreinuan integratu zen harana, bizimodu berezia eta markatutako pertsonalitate juridikoa mantenduz. Hain zuzen, gertakari horrekin lotzen da komunitatearen mito igualitarioa, oinarri historiko argia ez duena. Eredu mitikoaren arabera, gizabanako libreen komunitate bat osatzen zuten zaraitzuarrek, jatorrian subiraua zena eta monarkian itun bidez sartu zena (Larrea, 2000: 64; Martín Duque, 2002: 645-651).

Berez, IX. eta X. mendeetako gizartearen azterketan badira oraindik adituen artean zalantzak sortzen dituzten alderdiak. Batez ere, ez delako ziurra ea garaiko mugimendu kolonizatzailearen eta nekazaritza-hazkunderaren protagonistak nortzuk izan ziren, monasterioak edota nekazari libreak. Kontua da, horri lotzen zaiola Goi Erdi Aroko Pirinioetako gizartearen definizioa; lehenengo usteak jaunen partaidetza handiagoaren ideia nagusitzen du, eta bigarrenak, berriz, komunitateetan antolatutako nekazari libreena (Larrea, 2005: 51).

Hala eta guztiz ere, bereizgarriak dira haran piriniotar ezberdinen pertsonalitate berezia eta ezaugarri komunak (Larrea, 2005: 47). Zentzu horretan, Martín Duquek abereen aldizkako lekualdaketaren eta populaketa nukleoak inguratzen zituzten lur eta mendien aprobetxamendu komunaren garrantzia aldarrikatu du, komunitatearen ideiarekin baieztapean goiztiarrerako ezinbestekotzat hartu duena. Adituaren esanetan, haraneko biztanleek *concilium* edo asanblada kolektibo bat osatu zuten, goiztiartasuna gorabehera, Erdi Aroan zehar iraungo zuena (Martín Duque, 1963: 645-646).

Izan ere, jada XI. menderako haraneko kideek inguruko baso eta bazka espazio handietan zuzeneko sarbidea zuten, aldizkako lekualdaketei lotua, ezinbestean, haran-mailako antolaketa eskatzen zuena⁵. Antolakuntza horretan, aurrerago sakonduko dugun moduan, iparraldeko herriek zuten garrantzia azpimarratu da; Erdi Aroan zehar hegoaldeko herriek Haraneko Unibertsitatean eskubide guztiak eskuratu zituzten arren, nolabaiteko desoreka ikusten da, ez soilik demografikoa, baita, aberastasunei lotua ere, haranaren buruko herrien mesedetan (Larrea, 2000: 200-205).

Alderdi sozialari erreparatuz gero, Martín Duqueren aburuz, Zaraitzu borrokalariekin lurra izan zen denbora luzez, Iruñeko erreinua finkatu arte, gutxienez. Horregatik dio asko zirela zaldunak eta aitonen semeak, dokumentuetan *maiores* gisa izendatzen direnak. Bestetik, *minores*ak zeuden, herritarren gehiengoa, *laboratores* edo nekazariak, kategoria juridiko baxuagokoak. Garai bateko independentzia horren aztarna gisa, erregearenak ez ziren jaurgoeikiko erresistentzia aipatzen du, eta handiki laikoek zein eklesiastikoek zituzten mezkinoen emanzipatzeko ohitura, eta errege-eremuko herrietan integratzekoa. Martín Duqueren hitzetan, bai batzuk (*maiores*) eta bai besteak (*minores*) komunitatearen kide ziren, asanbladako parte-hartzaileak, non elkarrekin jarduten zuten tokiko arazoengatik inguruan, guztien ongizatearen alde (Martín Duque, 1963: 645).

Hala ere, gogoan izatekoa da, lan honen kronologian, morrontzaren hedapenaren garaian aurkitzen garela, non nekazarien gehiengoari inposatutako estatus hori, aitonen

5 Goi-mendietako esparruen kontrol komunitarioaren logika ekonomikoa argia da: eskulana aurrezteko, portu ezberdinen erabilera ahalbidetzea etab. Aztertzeke daude, ordea, hori eskuratzeko bideak, IX eta X. mendeetan zehar protagonista ezberdinen eskuetan egon baitzen eremu horien kontrola: botere publikoaren titularrak, erregeak, kondeak, erreinuko baroien eliteko kideak, monasterio handiak, eta baita, tokiko handiki eta aberatsak ere. Batzuetan koroak amore eman zuen, eta dohainik edo errentan eman zizkien lurak komunitateei. Dena den, beste kasu batzuetan, epe luzeko gatazkak eragin zituen. Hala ere, prozesu horien atzean, bai Zaraitzun eta bai Erronkarin, inguruetako beste haran batzuetan bezalaxe, komunitatearen dinamismoa eta presioa antzematen dira (Larrea, 2005: 59).

semeenari kontrajartzen zitzaion. Dena den, Jazetaniatik Naiarara doan eremu zabala kontuan hartuz gero, erdialdeko zonaldean dominazio eredu hori nabarmena zen, ez, ordea, haren periferian, hots, haran Piriniotarretan, eskualde Altantikoan eta hegoaldeko lautadetan⁶. Halaber, aurrerago sakonduko dugun arren, Goi Erdi Aroko monasterioen jabetzek markatzen zuten morrontzaren iparraldeko muga, hau da, honarte iristen ziren XI eta XII. mendeetako mezkinoak (Larrea, prentsan). Zehatzago esanda, Izaletik, Uskartzetik eta Izizetik datoz Zaraitzuko XI. mendeko mezkinoen berriak⁷. XII. mendean, berriz, Ibiltzietako mezkinoen aipamena dugu⁸.

Ez da pentsatu behar, ordea, aipatutako periferia eremu horietan menderatze egiturarik ez zegoenik. Aitzitik, familia-buruen estratu zabal batez hitz egin dezakegu, nahiz eta kontzeptuak konnotazio ezberdinak izan ditzakeen. Buru horien nagusitasuna familiaren ondarearen kontrolari eta lurralde-baliabideetarako sarbideari lotzen zitzaion, Pirinioen kasuan, zehazki, goi-mendietako bortuen erabilerari (Larrea, prentsan).

2.1. Zaraitzu harana iturrietan

Zaraitzuren inguruko lehen aipamenak iturri arabiarretakoak dira, *Muqtabis* izeneko testukoak, zeinetan *Ibn Hayyanek* iruñarren eta musulmanen arteko gertakari gorabeheratsu batzuk azaltzean, *Sartaniyyun* gisa izendatu zituen *Sartaniyya* eremuko biztanleak, hots *Cerretaniakoak* (Martín Duque, 1963: 637). Hala ere, berez, hitz horrek, Antzinatean, Erdialdeko Pirinioetako eremu zabal bati erreferentzia egiten zion, gaur egungo Cerdanyatik Nafarroa ekialdeko haranetara arte luzatzen zenari, alegia (Larrea, 2009: 293). Aipamen horien ondoren, giza errealitate kolektibo gisa, lehen aldiz 997ko dokumentu batean agertzen dira zaraitzuarrak, Leireri egindako Isusa errege monasterioaren dohaintzaren lekuko: *filiu bonorum patres de Saresacensi vallem* (Larrea, 2000: 195-196).

Haranari dagokionean, Rodako Genealogietan, IX. mendearen amaierako eta X. mendearen hasierako gertakaera baten harira, *Salerazo* agertzen da⁹. Gerora, X. mendearen azken hamarkadako eta XI.aren erdialdeko agirietan *valle*, *suburbium* eta *terra* gisa azaltzen da. Ordea, haran izendapenak ez du zentzu geografikorik. Hau da, ez

6 Eremu horietako feudalismoaren azterketa konparatibo sakonago baterako: Larrea, prentsan.

7 DML 184, 185 eta 186.

8 DML 264. 1119. urtean *Iohannes de Ledenak* Ibiltzietako mezkinoak eman zizkion Leireri.

9 “*Iste Garsea Scemenonis occidit sua mater in Galias in uilla que dicitur Laco et occiderunt eum in Salerazo Iohannes Blascones et Cardelle Blascones*” (Lacarra, 1945: 235-236).

ditu kontuan hartzen Zaraitzu ibaiaren inguruko esparru guztiak, ibilgua Ilunberrira arte luzatzen baita. Aitzitik, giza-izendapena da, eta politiko-administratiboa, zaraitzuarren lurra, alegia, aurreko garaiko kronika musulmanetan aipatutako *sarataniyyinen* komunitatea, Martín Duqueren ustetan (1963: 638-644).

Hurrenez hurren, 924ko diploma batean Usungo San Pedro *Saresazo* ibaiak bustitzen duela esaten da¹⁰, eta 1042ko beste batean, Lisabe monasterioa *in confinium aque Sarrexasi* dagoela¹¹. 1057an Ruesako San Juan monasterioa *in suburbio terre Sarresacii* ipintzen da¹². Ordea, 1034an Itzaltzuri erreferentzia egitean, *in terra de Saresazo* kokatzen da¹³, eta 1040an Isusa monasterioa haranaren sarreran bertan, *in Ualle Sarasazo*¹⁴. Horrela iristen gara 1072ko dokumentura, haraneko pertsonaiarik garrantzitsuenak biltzen dituenara¹⁵ (Martín Duque, 1963: 644).

3. DML 97: 1072ko agerraldi kolektiboa

Gai honetara hurbildu direnek (Martín Duque, 2002; Larrea, 2000) haranaren barne-egitura aztertzerako orduan, Ori mendiko sarobeei dagokien erosketa hartu izan dute erreferentzia gisa, 1072. urtekoa. Hain zuzen, *Eneco Sanzek*, Nafarroako baroien eliteko kideak, eta bere emazte *Urracha Acenarizek Wilelm Ernaldi*, Zuberoako jabe handi bati, *Uizulla Mayor* eta *Uizulla Menor* sarobeak erosi zizkioten¹⁶. Bereziki aipagarria da haraneko kideak lekuko gisa ez ezik, berme gisa ere agertzea. Berez, agirian erosketari dagokion zatia oso laburra da, dokumentuaren testu gehiena zaraitzuarren zerrenda luze batek osatzen baitu. Guztira 73 lekuko eta berme ageri dira, erosketaren aipamen motzaren ostean. Zuberoako lehenengo biak izan ezik, gainerakoak Zaraitzuko kideak dira, herrien arabera antolatuta. Era berean, azken horiek, iparraldetik hegoaldera adierazita daude: Otsagabia, Eskaroze, Jaurrieta, Orontze, Espartza, Ibiltzieta eta Uskartze. Azken bi horien arteko Sartze, Igari, Gorza, Itzalle, Galoze, Erripalda eta Izize ez dira aipatu ere egiten, ezta Otsagabiaren iparraldean kokatutako Itzaltzu ere, artean monasterio bat zena. Hamabost herriak agertzen ez diren arren, gerora Zaraitzu Haraneko Unibertsitateak (gaur egunera arte iraun duenak) izango

10 (Goñi, 1997: 2. dok.).

11 DML 31.

12 DML 53.

13 DML 26.

14 DML 28.

15 DML 97.

16 Bi sarobeek 575 hektarea baino gehiagoko eremu bat osatzen zuten. Esan daiteke, beraz, erosketak bertako abeltzaintza transhumantean izandako eragina nabarmena izan zela (Larrea, 2000: 196).

zituen mugak dira horiek. Hori adierazgarria da ikuspegi geografiko batekin ez datorrelako bat, kasu horretan, Nabaskozeko Almiradioko herriak ere barne hartuko baitziren (Larrea, 2000: 196-201; Martín Duque, 2002: 644-663).

Aipatu moduan, hegoaldeko zatia, Leireren domeinua nagusi zen eremua, 1072ko agirian ez da agertzen. Pentsa daiteke, beraz, esparru hori une horretan ez zela komunitatearen partetzat jotzen, bai, ordea, gerora, nahiz eta iparraldeko herriekiko mendekotasunean egon. Gainera, jada azpimarratu dugu eremu hori zela XI. eta XII. mendeetako mezkinoen presentziaren iparraldeko muga (Larrea, prentsan). Hain justu ere, badirudi XI. mendeko Izalgo biztanleriaren gehiengoa mezkinoek osatzen zutela. Eskarozeko jabe *Kardiel Blasconesek* Leireri eman zizkion Izalgo mezkinoak, baita Uskartzekoak eta Izizekoak ere, kantitate txikiagoan azken bi horiek¹⁷. Bestalde, adierazgarria da Izalgo San Bizente monasterioak herrian bertan ez ezik, Gortzan, Uskartzen, Galozen eta Erripaldan zehar banatutako jabetzak zituela XIV. mendean. Orokorrean, beraz, jabetzak eta mezkinoak zituzten jaunen presentzia handiagoak ziren hegoaldean iparraldean baino. Hortaz, gehien nabarmendu dena haranaren iparraldearen eta hegoalderen arteko kontrastea izan da, hots, iparraldearen berezitasun soziala eta nagusitasuna haranaren eskalan, hurrengo mendeetan nabarmena bihurtu zena. Deigarria da, gainera, jada 1072ko dokumentuan iparraldeko herrietako kideen kopurua handiagoa izatea hegoaldekoena baino (Larrea, 2000: 199-201).

Era berean, agerian ipini da harana ez dela soilik barruti administratibo gisa agertzen, interes komunitate gisa baizik. Hori horrela, pentsa daiteke amaierako “*testes et totos de illa Ualle*” esaldiak ez diela zaraitzuar guztiei erreferentzia egiten, zerrendatzen diren kideei baizik (Larrea, 2000: 196-201; Martín Duque, 2002: 644-646).

4. Iturriak: agiri multzoaren osaketa

XI. mendeko Zaraitzuko gizartera hurbiltzeko dugun agiri multzoa Leiretik dator bere osotasunean, hain zuzen, artxiboko piezarik garrantzitsuena den Becerro Antiguoz izeneko kartulariotik. Biltzen dituen agirien kopiaketa-lana fase ezberdinetan egin zen, 1111an Raimundo abade frantsesaren ekimenez hasi ondoren. Hasierako lan horri, beste kuaderno batean, Leireri emandako errege pribilegioak gehitu zitzaizkion, Gartzia eta

¹⁷ DML 184, 185 eta 186, hurrenez hurren.

Petri abadeen garaiko (1121-1150) dokumentazioaren kopiarekin batera. Bestalde, badaude ere gerora gehitu ziren dokumentuak. Guztira 22 koadernotan banatutako 137 foliok osatzen dute kartularioa. 842 eta 1201 bitarteko 209 agiri dira bildutakoak, horietako 13 errepikatuak. Kopien kalitateari dagokionez, gogoan izan behar dugu kartulario bat dela eta hortaz, kopiek jatorrizko testua laburtzen edo desitxuratzen dutela banakako kasu batzuetan (Martín Duque, 1983: XII-XXVI).

Badirudi Leireko kartularistek ez zutela kriterio bakar bat erabili piezak sailkatzeko, ordena kronologikoaren, geografikoaren, juridikoaren edo diplomatikoaren arabera, pribilegio errealeen taldekatze bat egitera mugatu baitziren. Hala ere, Martín Duqueren esanetan, diplomen kokapenaren azterketak bilketa prozesuaren eraikuntza hipotetiko bat egiten lagun diezaguke. Gure helbururako aipagarriak dira 13. eta 14. kuadernoetako dokumentuak, Leirek Zaraitzun, Nabaskozen eta Aizpurgin zituen jabetzetako kartulario txiki batetik etor zitezkeenak. Horiek lotuta daude monjeek Zaraitzuko eta Erronkariko biztanleekin zituzten arazoekin, zeinek, azkenean, Gartzia V.a Ramiritz erregearen esku hartzea eskatu zuten. Azken bost agiriak haranetik hegoaldera kokatzen diren Nabaskozeri eta Aizpurgiri lotutakoak dira, eta beraz, gainerakoak, Zaraitzun kokatuak, dira interesatzen zaizkigunak (Martín Duque, 1983: XVIII-XXVI).

1034tik 1072ra bitarteko hamar dokumentuk osatzen dute gure bilduma: DML 26, 36, 58, 55, 64, 84, 184, 185, 186, 97¹⁸. Tipologiari dagokionez, agirietatik zazpi dohaintzak dira, beste bi zenbait salerosketen notiziak eta azkena salerosketa bat. Azpimarragarria da multzoko agirien gehiengoa dohaintzek osatzea, kontuan hartuta eskualdatzen diren ondasunen garrantzia, xumeagoak diren salerosketekin alderatuz gero. Hain zuzen, Zaraitzuren inguruko lehenengoetako berriak izateaz gain, monjeek identifikatutako interes-sare bat adierazten digu multzo honek, gizarte-arkitekturan sakontzea ahalbidetu diguna. Kontuan izan behar dugu, hala ere, landutako agiriak ez zirela haranean idatzi, Leirek osatutako bilduma baita esku artean duguna, monasterioko monjeek kontserbatzea erabaki zutena, eta haraneko biztanleekin izandako hartu-emanak biltzen dituen. Beraz, Leireren ikuspegiak gure hurbilketa baldintzatzen du.

18 DML 184, 185 eta 186 agirien kasuan ez dugu kronologia zehatza ezagutzen. Badakigu, ordea, XI. mendekoak direla. Berez, landutakoak XI. mendeko Zaraitzuri dagozkion dokumentu guztiak dira, bi errege dohaintza (DML 28 eta DML 114) salbuetsita. Izan ere, ez zaizkigu baliagarriak iruditu gizarte egituraketan sakontzeko.

1. IRUDIA: ZARAITZURI BURUZKO DOSIERRA BECERRO ANTIGUOAN

ERREFERENTZIA	DATA	MOTA	ERAGILEA(K)	ESKUALDATUTAKO ONDASUNAK
DML 26	[1034] ¹⁹	DOHAINZA	<i>Senior Blasco Asnari</i>	Itzalzuko Salbatzaile Santua eta San Migel monasterioa
DML 36	1046	DOHAINZA	<i>Dompno Garinno D'Esparça Dompno Azubeli Dompno Eriz Dompno Sancio Azubeliz Dompno Belasco Dompno Sancio Dompno Enneco Dompno Fortunio</i>	Santa Maria monasterioa
DML 58	1058	DOHAINZA	<i>Senior Garsia Blascones de Escaloz</i>	<i>Urdasacu sarobe</i> a
DML 55	1057	SALEROSKETA	<i>Dompno Sancio Axubeliz de Escaroz</i>	Lau mahasti Ledean, Santa Mariarentzat
DML 64	[1058-1061]	SALEROSKETA	<i>Dompno Blasco Aceariz de Escaloz</i>	Bi mahasti Ledean, Santa Mariarentzat
DML 84	1068	DOHAINZA	<i>Mancio Acenarz Bere semeak Dompno Acenari monacho iloba</i>	San Joan Bataiatzailea monasterioluma
DML 184	XI. MENDEA	DOHAINZA	<i>Senior Kardiel Blascones</i>	Itzaltzuko mezkinoak
DML 185	XI. MENDEA	DOHAINZA	<i>Senior Kardiel Blascones</i>	Uskartzeko mezkinoak
DML 186	XI. MENDEA	DOHAINZA	<i>Senior Kardiel Blascones</i>	Izizeko mezkinoak
DML 97	1072	SALEROSKETA	<i>Senior Eneco Sanz Domina Urracha Acenariz</i>	Ori mendian <i>Uizulla Maiore</i> eta <i>Uizulla Menore</i> sarobeak

¹⁹ Kortexte bidez adierazitako datak ez dira ziurrak.

Batez ere, multzoko lehen sei dokumentuak izan dira landutakoak. Horietako lau Leireri egindako dohaintzak dira, eta beste biak monasterioetako bati lotutako salerosketen notiziak²⁰. Lehenengo pausoa, beraz, dokumentu horietan agertzen diren eragileak xeheki identifikatzea izan da. Horretarako Leirek erabilitako izendapenak (*senior*, *don* edota *dompno* hitzak, adibidez) mantendu ditugu, aukera egokia iruditu baitzaigu monasterioaren pertzepzioaren logikara hurbildu ahal izateko²¹. Era berean, agirietan duten rolaren arabera bereizi ditugu: lekukoak²², bermeak eta konfirmatzaileak. Banaketa hori egitea interesgarria iruditu zaigu, izendapenak maila sozioekonomikoaren eta agirien protagonistekiko hurbiltasunaren adierazle baitira, eta beraz, harreman-sareen identifikaziorako aproposak. Badaude ere zehaztu gabekoak, kasu batzuetan ez baita horrelako bereizketarik egiten.

Azalpena errazteko osatutako taularen (ikus 2. irudia) barnealdean Zaraitzuko komunitateko kideak kokatu ditugu, eta kanpoan, beraz, kanpokoak. Horien artean, goi-agintariak aipa ditzakegu: erregea, apezpikuak, Leireko abadeak, bestelako elizkarguak, eta erregearen ordezkari lanetan jarduten duten *senior* edota tenenteak (Lema, 1994: 3-6), baita, kasu batzuetan, beste eremu batzuetako familietako kideak ere. Zaraitzuarrei dagokienean, erreferentziazat hartu ditugun adituek izendapen kolektibo edo neutroen erabilera azpimarratu dute: “*omnes homines de valle de Ronchal et de valle de Sarasaz*²³” edota “*totos de illa valle*²⁴”. Badira ere, ordea, ezberdintasunak erakusten dituztenak: “*maiores et minores*²⁵” eta “*omnes filii bonorum patres de Saresacensi uallem*²⁶”, adibidez.

20 DML 26, DML 36, DML 58, DML 55, DML 64 eta DML 84.

21 Kasu batzuetan, dokumentu berean pertsonaia bera modu ezberdinetan azalduz gero, aukeretako bat lehenetsi dugu. Esaterako, 1057ko (DML 55) dokumentuaren kasuan *Lope Acenariz Lope Acenarz* gisa ere ageri da. Beraz, *Lope Acenariz* hobetsi dugu, hori baita izendapen ohikoena.

22 Multzo honetan “testis” eta “auditor” gisa identifikatutako gizabanakoak sartu ditugu.


23 DML 292.

24 DML 97.

25 DML 97.

26 DML 13.

2. IRUDIA: AGIRIETAKO KIDEEN ADIERAZPEN GRAFIKOA



Batetik, aipagarria da nagusitasun soziala iradokitzen duen *senior* (hemendik aurrera, jaun) hitzaren erabilera mugatua. Aldiz, askoz ohikoagoak dira *dompno* edo *don* kontzeptuak, monje eta apaizei erreferentzia egiteko erabiliak. Esaterako, 1046ko dokumentuan *dompno* gisa izendatutako zortzi monjek Santa Maria monasterioa eraiki eta Leireri ematen diote²⁷. Bestalde, agertutako izen guztietan bakarra da emakumezko batena: *Toda*, jaun *Blasco Lopiz de Guesaren* emazte gisa aurkezten dena. Gainerako guztiak gizonezkoak dira. Emakumeen presentzia urriaren gaia aurrerago sakonduko dugu.

Aipatu moduan, dokumentuetako gizabanakoen arteko loturak adierazteko, kide guztiak taula batean bildu ditugu. Bertan agiri bakoitzaren kronologia, kokapena eta eragilea adierazi ditugu, baita, ondasunen izaera ere: monasterioak, sarobeak eta mahastiak. Argi ikusten da pertsonaia guztiak Leireko monasterioarekin harremanduta daudela, dohaintza bidez. Horrez gain, haranetik kanpoko pertsonaien aipamenek kanpo eragileekiko hartu-emanak antzemateko balio dute: koroarekiko, apezpikutzarekiko, eta kanpoko familia garrantzitsuekiko. Azkenik, letra lodiz adierazita daude, 1072ko dokumentuarekin lotura duten gizabanakoak, batzuk ziurtasunez, beste batzuk probabilitate handiarekin.

5. Eragileak eta taldeak

Atal honetan dokumentazioaren azterketaren bidez identifikatutako eragile-taldeen inguruan arituko gara (ikus 3. irudia). Hartara, agiri bakoitza azalduko dugu, multzo horietako kideen ezaugarriak jorratu ahal izateko.

5.1. DML 26 (1034): jaun *Blasco Asnari*

Lehenengo dokumentuan jaun *Blasco Asnarik* Leireko monasterioari ematen dizkio bere Itzaltzuko monasterioa²⁸, monasterioaren lurrak, mahastiak, ortuak, errotak, bortuak, mugarteak eta orokorrean jabetzak ez ezik, Eskarozeko bere ondarea (etxeak salbuetsita) ere²⁹. Dohaintza horren konfirmatzaileak, erregea eta apezpikua dira: *Sancius princeps* eta *Sancius episcopus*. Jaun izendapena daramaten gutxi horietako bat izanda ere, haren garrantzia nabarmena da, erregearekiko eta apezpikuarekiko hurbiltasunak argi erakusten duen moduan. Lekuko gisa, haraneko hainbat kide ditugu,

27 DML 36.

28 *Monasterium* eta *oratorium* kontzeptuak erabiltzen dira izendapenarako.

29 DML 26.

horietako bakar bat jaun gisa izenpetua, lehenago aipatu dugun Gortzako jaun *Blasco Lopiz*, alegia. Bestalde, gizabanako horietako batzuk errepikatu egiten dira hurrengo dokumentuan³⁰.

5.2. DML 36, 55, 64, 58 (1046-1058): *Santa Maria monasterioko taldea*

1046ko agiriak Eskarozeko Santa Maria monasterioaren eraikuntzaren, kontsakrazioaren eta dohaintzaren berri ematen digu³¹. Bertan zortzi *dompno* ageri dira: *Garinno d'Esparça, Azubeli, Eriz, Sancio Azubeliz, Belasco, Sancio, Enneco* eta *Fortunio*. Monje horiek monasterioa eraiki, eta sagaratu zen egunean Leireri eman zioten, haren jabetzekin batera. Bada ere, ondarearen gaineko eskubidea erreklamatzeko aukera izango zuketzen kideen aipamena: “*aliquis ex propinquis aud parentis aud filiis ad quislibet homo*”. Semeak aipatzen direnez gero, pentsa daiteke bizitzako une batean monje egin diren laikoen inguruan ari garela. Orokorrean, agiria garrantzitsua da, gainerako dokumentu guztiekiko giltzarri moduan agertzen baita. Hain zuzen, Ledeko erosketak jasotzen dituzten bi dokumentuak, monasterio honentzat egindako erosketak dira. Beste bien kasuan, aldiz, 1046ko pertsonaiak errepikatzen dira. Era berean, apezpikuarekiko harremanak ere islatzen ditu, honako hau aurkitu baitezakegu amaieran: “*facta carta tradictionis die dominico de carnes tollendas, quando fuit sacracione de Santa Maria de Escaloçe*”. Apezpikuarena izanik eliza kontsakratzearen eskuduntza, zeremonian bertan egon zen.

Hurrengo urteetan, aipatutako kideak Santa Maria monasterioaren ondarea zabaltzeaz arduratu ziren. Hegoalderantz hedatu ziren, hain zuzen, erregeak Leireri emandako Ledeara, non *Aruesa* izendatutako eremuan sei mahasti erosi zituzten, 1057ko eta 1058-1061eko agirietan adierazten den moduan³². Erosleak *dompno Sancio Axubeliz de Escaroz* eta *dompno Blasco Aceariz de Escaloz* izan ziren, hurrenez hurren,

30 Posible da, *Blasco Asnari* bera izatea 1046an (DML 36) *dompno Belasco* gisa agertzen dena. Izan ere, 1058an (DML 58), *dompnus Sancio Ascubeleiz* eta *prior dompnus Blasco de Escalozek*, Santa Maria monasterioaren egileek, dohaintza bat egin zuten. Pertsonaia berak izan ziren ere monasterio berarentzat Ledean mahastien erosketak (DML 55 eta DML 64) egin zituztenak: *dompno Sancio Axubeliz de Escaroz* eta *dompno Blasco Aceariz de Escaloz*. Kontuan hartuta azken kasu honetan *Blascoren* patronimikoa (*Aceariz*) zehazten dela, posible da, 1034ko (DML 26) jaun *Blasco Asnarirekin* lotzea. Agian, zahartzaroan monje bihurtutako pertsonaia baten inguruan ari gara. Gainera, hasieratik errege eta apezpikuarekin lotura duela ikusten dugu. 1058an, berriro ere, apezpikuak konfirmatzaile gisa agertzea, beraz, ez da harrizkoa. Badirudi ere, pertsonaia bera dela 1072an (DML 97) Eskarozeko kideen artean agertzen den *Don Blasco Acenariz*.

31 DML 36.

32 DML 55 eta DML 64, hurrenez hurren.

Santa Maria monasterioaren fundatzaileetako bi, hurrengo dokumentuan, 1058koan, konfirmatzaile bezala ageri direnak. Orobat, beste testuekiko lotura nabarmena da. Gainera, kanpo eragileekiko harremana ere iradokitzen du, lekuko gisa Ledeko Gintiren familia agertzen delako, baina baita Esako *dompno Sancio*, Leireren monasterioa zen Lisabeko *Sancio Enecones* eta *Eneco casero de Legir* ere³³.

1058ko dokumentuan Eskarozeko jaun *Garsia Blasconesek* Leireri sarobe bat eman ziola adierazten da³⁴. Horrek ere baditu bere berezitasunak; kasu honetan konfirmatzaileen zerrenda da interesgarria. Haraneko kideei dagokienez, aipatu berri ditugun *prior dompnus Blasco de Escaloz* eta *dompnus Sancio Asçubeleiz* izendatzen dira, Santa Maria monasterioaren egileak biak. Kanpoko parte-hartzaileak ere badira, hiru apezpiku: *episcopus dompnus Iohannes de Leiore et de Pampilona*, *episcopus Gomessanus de Nagela* eta *episcopus Garsea de Aragone*. Bestalde, San Juan de la Peñako abadea ere agertzen da: *abbas dompnus Blasco de Sancti Iohannis*. Hain justu ere, konfirmatzaileak izendatzeko hurrenkera deigarria da, ospakizunean bakoitzak zuen posizioaren isla dena: lehenengoa Iruñeko apezpikua da, ondorengo biak haraneko elizgizonak, eta azkenik, beste bi apezpikuak eta abadea. 1072an bezala, agerikoa da haranekoen garrantzia bortuetarako sarbidea jokoan dagoenean.

Bestalde, atenzioa ematen du esaldietako batek: “*unum cubilare in cenobio quod dicitur Leior, locus quem uocitatus est proprium uocabulum sortitum est Urdasacu*”. Azpimarratutakoa adituen partetik interesa sortu duen kontzeptua da. Izan ere, José María Lacarrak euskararen gaitzespen gisa hartu zuen, nekazarien hizkuntza zen aldetik (Lacarra, 1957: 13). Gaitzeste horrek gainerako kideetatik bereizteko nahia adieraziko liguke. Hori horrela, nagusigo soziala erakusteko estrategietako bat izango litzateke. Gogoan izan, egilea jaun bat dela, kanpo eragileekiko harreman garrantzitsuak dituen. B. Fagoagaren irtiz, ordea, euskara ez da zikin (*sordidum*) gisa agertzen, erabiltzen den terminoa *sortitum* baita, eta horren bidez esan nahi dena zera da, Urdasakuri izen hori *egokitu* zaiola, hots, *Urdasacu* izena duela. Argudiaketa gisa hurrengo esaldia darabilki: “*locus quem uocitatus est proprium uocabulum sortitum est*

33 Bada ere lekukoaren artean *Eneco Enecones* izendatutako pertsonaia bat. Aldi berean, bere emaztearekin batera saltzaileetako bat zenez, posible da Ledeko jabe familia bateko kidea izatea, edota agian, Gintirekin lotzea. Lekukoez gain, erosleak ere zehazten dira, noski: *Galindo Aquascalas*, *Inglidia Garseas Fortuniones de Urroz*, *domna Lopa* etab.

34 DML 58.

Urdasacu”, gramatikalki okerra izan arren, “izendatua izan den lekua” esan nahi baitu (Fagoaga, 1963: 213).

5.3. DML 84 (1068): *Jaurrietako San Joanen taldea*


Amaitzeko, 1068koa *Mancio Acenarzek*, bere semeek eta *monacho Acenari* ilobak egindako dohaintza bat da, Jaurrietako San Joan Bataiatzailea monasterioarena³⁵. Agirian hiru belaunalditan zehar eskualdatzen den jabetza baten inguruan hitz egiten da eta beraz, transmisioaren funtzionamendua aztertzeko balio digu (ikus 2. irudia). Hain zuzen, Jaurrietako *Mancio Sanzek* bere etxea eman zion bere iloba³⁶ eta diszipulua zen *Eriz Akutizi*, bi idiren truke. Aipaturiko eremu horretan, *Eriz Akutizek monasteriolum* bat eraikitzea erabaki zuen, eta hiltzear zegoela, *Eriz Aceariz* bere ilobari eman zion. *Eriz Acearizek* bere anaia *Sancio Acenarizi* eman zion monasterioa, eta horrek bere anaia *Mancio Acenarizi*. *Mancio* da dohaintza egiten duena, bere semeekin eta ilobarekin batera. Hortaz, ondorioztatu daiteke *Eriz*, *Sancio* eta *Mancio (Acenariz)* anaiak zirela, eta *Sancio*ren semea *monacho Acenari* zela, *Mancio*ren iloba, alegia. *Mancio*ren semeak (*filiis*) ere aipatzen dira, izendatzen ez diren arren. Bestalde, *Eriz* izenaren erabilerak, 1046ko *dompno Eriz* gogora ekartzen digu, are gehiago kontuan hartuta bai *Eriz Akutiz* eta bai *Eriz Aceariz domino* gisa izendatzen direla.

Agiriaren lekukoak Eskaroze, Orontze, Espartza eta Jaurrietako kideak dira. Haatik, aipamen orokorra den egiten da, izendapenetan sartu gabe: “*omnes homines de Eschaloz et de Oronz et d’Esparza*” eta “*maiores et minores de Eiaurrieta*”. Dirudienez, haranaren iparraldeko eremu hori da komunitatearen ardatza. Hala ere, aipagarria da Jaurrietaren kasuan *maioresen* et *minoresen* bereizketa egitea. Horrek adierazten digu tokiko esparruan biztanle guztiak izan zirela lekuko. Beste hiru herrien kasuan horrelakorik ez dugunez, badirudi goi-mailako kideak soilik direla izendatutakoak, hots, eremu supralokalean aritzen direnak.

35 DML 84.

36 *Nepote* hitza da erabilitakoa, eta beraz, ez da zehazten ea ilobari edo bilobari egiten zaion erreferentzia. Hala ere badirudi osabarengandik ilobarenganako delat besterentzea. Apariciok ere horrela identifikatu du (2019: 130).

3. IRUDIA: ZARAITZU HARANEKO ERAGILE-TALDEAK



Agirian agertzen den familia-egitura kontuan hartuta, elizaren transmisioaren inguruan *Acenar* familia nola antolatzen den errepresentatu dugu grafikoki (ikus 2. irudia). Santa Maria monasterioaren sortzaileak eta *Azubelitarrak* ere modu berean adierazi ditugu, nahiz eta horien inguruan dugun informazioa horren xehea ez izan. Dena den, bigarren irudikapen honek azalpen orokorretik ideia zehatzetara garamatza. Hain zuzen, modu sintetikoagoan, transmisio-moduak eta harreman-sareak identifikatzea errazten digu. Oro har, haraneko kideen arteko loturak zehaztu ditugu, baita Leirerekin, apezpikuekin eta erregearekin izandako hartu-emanak ere.

6. Aurreko taldeen lekua 1072ko ekitaldian

Azkenik, hirugarren taula batean 1072ko dokumentuan aipatutako kideak zehaztu ditugu, testuan bertan bezala, herriaren arabera antolatuta (ikus 3. irudia). Gehiengoa, Eskaroze, Jaurrieta, Orontze eta Espartzako lekukoek osatzen dute, landu berri dugun eremukoek, alegia. Ordea, Otsagabiako kideak ez dira gutxi, XI. mendeko agirietan horien inguruko aipamenik ez dagoen arren, aztertutako lehen dokumentuko *Dato Blascones de Osxagauia* salbuetsita. Agertzen diren pertsonaiei erreparatuz gero, loturak argiak dira. Berriz ere, letra lodiz adierazi ditugu aipatutako dokumentuekin zerikusia duten kideak. Landutako zonaldean, *Azubeli* eta *Acenar* familien presentzia argia da. Lehenengoak batik bat Eskarozen (*Basco Azubeliz, Fertunio Azubeliz, Don Azubel, Azubele Blasc*) ageri dira, eta bigarrenengoak, berriz, sakabanatuago, aipatutako lau herrietan zehar. Zentzu horretan, deigarria da herri horietako kideak direla 1068ko dokumentuan lekuko gisa agertzen direnak, nolabaiteko gertutasuna edo lotura adierazten baitigu horrek. Posible da ere, dokumentu bereko *Sancio Acenarz* bera agertzea, baita bere seme don *Acenari* ere. Gainerakoak (*Acenar Sanz, Acenar Ortiz, Acenar Enecons, Acenar Meiz...*) ere harekin lotu ditzakegu, kontuan hartuta, gainera, bere anaia *Mancio*ren semeak aipatzen direla, zehazten ez diren arren. Agian, *Sanciok* berak monjeaz gain, beste hainbat seme zituen, *Acenar Sanz*, esaterako. Aukera bat da ere, Eskarozeko kideetako batzuk Santa Maria monasterioaren egileak izatea, *Don Blasco Acenariz, Don Fortunio Enecons, Don Azubel* eta *Don Eneco*, esaterako. Hala ere, helburua ez da lotura horiek modu zehatzean adieraztea, gizartearen egituraketa ulertzeko baliagarriak izatea baizik.

4. IRUDIA: 1072KO AGIRIKO ZARAITZUKO KIDEAK

1072, Eneco Sanz eta Urraca Acenariz senar-emazteak			
Otsagabia	Eskaroze	Jaurrieta	Espartza
Acenar Fortuniones Galín Blasc Amuerte Fortuniones Fortes Garuixi maiore Fortes Garbixsi minore Azubele Enecoz Galín Acenarz Arrexabio Frater Arioale Fortiz Arioale Sanz Fortes Meiz Gardele Acenarz	Vellu Garceiz Basco Azubeliz Sancio Bassoraco Sancio Enecons maiore Fertunio Azubeliz Eneco Ariol Azubele Blasc Don Blasco Acenariz Don Fortunio Enecons Don Fortes Sancio Enecons minore Don Azubel Armentari Sanz Don Iohannes Acenari Meiz Fortes Acenariz Don Eneco Blasco Sanz Don Armentari	Gomiz Oxanarriz Garseas Acenarz Fertunio Acenarz Fortes Acenarz Acenar Blasc Fortes Enecoz Xemen Laburra Azubele Blasc	Senior Zecudin Sanz Sancio Xemenons Xemen Oxanarriz Sancio Azenarz Garseas Sanz Galindo Oxanarriz Don Eneco Belza Amune Azenarz Orti Bixio Fortunio Acenarz Eneco Fortuniones Bellu Garceiz Sancio Sanz Don Galindo Acenar Sanz Acenar Ortiz
Uskartze		Orontze	
Senior Lope Arceiz Eneco Iohaniz Don Garinno Datoe Eneco Arceiz Oxoa Falcoiz		Acenar Enecons Acenar Meiz Sancio Acenarz Don Auriol Fortunio Sanz Don Gardele Don Acenari	
			Ibiltzieta
			Senior Sancio Gardeleiz Azubel Ortiz Manxo Ortiz Samurcho Ortiz
testes et totos de illa ualle qui sont maximum usque ad minimum			

Bestalde, dokumentuen azterketak haranaren antolaketan sakontzea ere ahalbidetu digu. Lehenago aipatu moduan, iparraldeko herrien nagusitasuna nabarmena da 1072ko dokumentuko lekukoen kopuruetan. Ez hori soilik. Kideen gehiengoa Jaurrieta-Eskaroze-Orontze-Espartza eremuko da, eta esparru horretatik datoz aztertu ditugun agirieta pertsonaiak. Bertakoak dira, beraz, nagusitasun soziala duten familiak, ziur aski, Leirek berak horrela identifikatuak. Hori da, dirudienez, landutako dokumentuak batera biltzeko arrazoi nagusia. Aitzitik, aztertutako agirieta, eta berez, osotasunean, XI. mendeko guztietan, Otsagabiako herritarren inguruko aipamena bakarra da, aipatu berri dugun 1034ko *Dato Blascones de Oxsaguiarena*, alegia. Hala ere, 1072ko dokumentuan Otsagabiako kideen kopurua nabarmena da, 12 baitira izendatutako lekukoak. Pentsatzekoa da, beraz, argudio berari jarraiki, otsagabiarrek haran-mailan zuten garrantzia aipagarria zela. Hipotesietan sartu gabe, zehaztu dezakegun bakarra da ez zirela Leirerekin harremandu, erdialdeko eremukoak ez bezala.

Horrez gain, 1072ko agirian gutxiengoa hegoaldeko kideek osatzen dute. Guztira, bederatzi dira, bost Uskartzekoak eta lau Ibiltzietakoak. Ez da harritzekoa, kontuan hartuta eremu horretan indartsuagoa zela Leireren nagusigoa, eta artean hegoaldeko herriak ez zirela komunitatearen parte. Bestalde, ezinbestekoa da mezkinoen presentzia gogora ekartzea, iparraldearekin alderatuta, ezberdintasun argia dena. Horren harira, hiru erreferentzia nagusi ditugu, XI. mendeko hiru agiri, hain zuzen ere³⁷. Aipatu moduan, jaun *Kardiel Blascones*ek Izalgo, Uskartzeko eta Izizeko mezkinoak eman zizkion Leireri. Kopuruak nabarmenak dira, batik bat, lehenengo kasuan, hain zuzen, 39 pertsonaia izendatzen dira, eta gainerako bietan 8 eta 7, hurrenez hurren. Deigarria da, gainera, horiek izendatzeko modua, *kasa* terminoa erabiltzen baita. Hala ere, guri dagokigunean, nahikoa da aipatzea herri horiek direla mezkinoen presentziaren iparraldeko muga.

7. Nagusigo soziala eta horren oinarriak

Nor dira, beraz, dokumentuaren amaieran aipatzen diren *totos de illa Ualle*? Argi dago nagusitasun soziala duten familietako kideak dira. Zertan datza, ordea, nagusigo hau? Zeintzuk dira haren osagaiak? Haraneko sektore zehatz batetik datozen gizabanakoak ditugu, botereari lotutako harreman-sareak osatu dituztenak. Harreman-sare horren identifikazioak haranaren gizarte artikulazioan sakontzera garamatza.

7.1. Leireren pertzepzioa

Nagusitasun sozialaren oinarriak zehaztu ahal izateko, aipatzekoa da Leireko eskriben pertzepzioa jorratzea. Terminologiaren arloan, jada aipatu moduan, *senior* hitzaren erabilera oso mugatua da. Hain zuzen, landutako sei dokumentuetan Zaraitzu haraneko 44 kide izendatzen dira³⁸. Horietatik hiru bakarrik dira jaunak: jaun *Blasco Asnari*, jaun *Garsia Blascones* eta jaun *Blasco Lopiz*. Horien jatorria ere aipatzekoa da: lehen biak Eskarozekoak dira eta hori da dohaintza gehienek kokapena. Hirugarrena, berriz, Gortzakoa, haranaren hegoaldekoa, 1072ko dokumentuan aipatu ere egiten ez dena. Lehenago azaldu moduan, eremu horretan ohikoagoa zen morroien jabe ziren jaunen presentzia. Era berean, 1072an, Zaraitzuko 71 lekuko ditugu³⁹; horietako hiru

37 DML 184, 185, 186.

38 DML 84 dokumentuan Mancio *Acenarzen* semeak (*filiis*) aipatzen dira, ez dira, ordea, izendatzen. Kontzeptu horrekin zenbat kide izendatzen diren ez dakigunez, ez ditugu gure kontaktetan sartu.

39 Ez da ziurra, baina kasu batzuetan badirudi pertsonaia bera errepikatzen dela herri ezberdinetan. *Azubele Blasc* Eskarozen eta Jaurrietan; *Acenar* (*Acenari*) *Meiz* Eskarotzen eta Orontzen; *Sancio Acenarz* Orontzen eta Espartzan; *Fertunio* (*Fortunio*) *Acenarz* (*Azenarz*) Jaurrietan eta Espartzan.

soilik izendatzen dira jaun gisa: *Lope Arceiz*, *Uskartzen*, *Zecudin Sanz*, *Espartzan*, eta *Sancio Gardeleiz*, *Ibiltzietan*. Gainerako kasuetan izendapen ezberdina elizgizonen kasuan soilik erabiltzen da, askoz ugariagoa den *don* hitzaren bidez. Hain zuzen, 13 gizabanako dira horrela izendatutakoak⁴⁰. Alegia, nahiz eta Leirek kideen gehiengoa ez duen *senior* eta *dompno* gisa izendatzen, botere-sare bat identifikatzen du, eta hari lotutako agiriak batera biltzea eta kontserbatzea erabakitzen du. Hortaz, Leirerekiko lotura hori nagusitasun sozialaren oinarrietako bat dela esan daiteke.

7.2. Ondarea

Leirerekin harremantzeko nahia ez ezik, gizabanako horiek horretarako baliabideak ere badituzte, hots, jabetzak, Leireri dohaintza gisa emandakoak. Hegoaldeko mezkinoak alde batera utzita, iparraldekoen kasuan ondarea monasterioek eta sarobeek osatzen dute. Monasterioak hiru dira: Itzaltzuko Salbatzaile Santua eta San Migel, Santa Maria eta San Joan Bataiatzailea. Jarraian sakonago aztertuko dugu monasterioen izaera, ikuspuntu material batetik ez ezik, egituraketa sozialean duten garrantziagatik. Era berean, *Urdasacu* sarobea eta Santa Maria monasterioko kideek Ledean erositako mahastiak aipatu behar ditugu. Badira ere, bestelako jabetzak: etxeak, lurrak, ortuak, mahastiak etab.

7.3. Ordezkaritza

Ondareari lotuta, ordezkaritza ere aipatu behar genuke. Izan ere, bitartekari rol hori bereziki nabarmena da inguruko bortuak jokuan daudenean. Ez da harritzekoa, kontuan hartuta goi-mendietarako sarbideak haran-mailako abeltzaintza transhumantean zuen garrantzia (Larrea, 2000: 196). Funtsean, hori da 1072ko agirian haraneko kideek duten eginkizuna. Baina ez orduan soilik, izan ere, 1058an, *Urdasacu* sarobearen dohaintzan, konfirmatzaile gisa agertzen dira haraneko bi kide: *prior dompnus Blasco de Escaloz* eta *dompno Sancio Asçubeleiz*⁴¹. Gainera, haranetik kanpoko hiru elizgizonak baino lehenago izendatzen dira eta horrek zeremonian izandako posizioaren berri ematen digu.

40 *Don Garinno Datoe*, *Don Blasco Acenariz*, *Don Fortunio Enecons*, *Don Fortes*, *Don Azubel*, *Don Iohannes*, *Don Eneco*, *Don Armentari*, *Don Auriol*, *Don Gardele*, *Don Acenari*, *Don Eneco Belza* eta *Don Galindo*.

41 DML 58.

Beraz, tokian tokiko elite baten inguruan ari gara, haran-mailan ordezkari lanetan aritzen dena. Gizabanako horien garrantzia, ordea, tokiko eremuaz gaindikoa da, kanpo eragileekiko loturek erakusten diguten moduan. Erregea, apezpikua eta hegoaldeko familiak ageri dira agirietan konfirmatzaile, lekuko edo berme gisa. Haranetik kanpo aritzeko joera hori bereziki argia da Santa Maria monasterioaren hegoalderako hedapenean, Ledeako mahastien erosketan, hain zuzen ere. Dударik gabe, ondasunen zabaltzea ez ezik, kanpo familiekiko harremanak finkatzea ere esan nahi zuen horrek.

7.4. *Monasterioak*

Bestalde, nagusigoaren oinarriak familia —zentzu modernoan eta *familia* Erdi Aroko zentzuan— monasterioei estuki lotuta daudela ikusi dugu, nabarmena baita horien inguruan antolatzeke joera. Izan ere, monasterioa, batetik, elementu sinbolikoa da, prestigioa eta estatusa ematen dituena. Hain zuzen, dokumentu guztiek Santa Maria monasterioarekin lotura estua dute, erdigune gisa funtzionatzen baitu. Hori da elkartzeko eta antolatzeke ardatza, haraneko kideen arteko loturak sustatzeko bidea, baita, kanpoko botere-guneekin dituztenak ere.

Ordea, adierazi bezala, monasterioa jabetza bat ere bada, hots, elementu materiala, familia egituratzeko bidea, eta aldi berean, Leireri lotzekoa, dohaintza bidez. Zentzu horretan, bereziki deigarria da familiako gizonen —eta ez emakumeen, horien aipamenik ez baitago kasik— artean elizak transmititzeko joera, Jaurrietako San Joan Bataiatzailea monasterioaren kasuan ongi ikusten dena. Horren arabera, belaunaldi bakoitzean elizgizon bat izendatzen dela dirudi, gerora ilobari eliza eta jabetzak ondorengotzan ematen dizkiona. Aipagarriena agian zera da, ondarearen eskualdatze horren bidez jabetzaren kohesioa mantentzen dela, inongo zatiketarik gabe. Antzeko funtzionamendua da Santa Mariaren kasuan hautematen dena: familia monasterioaren inguruan artikulatzen da. Ezberdintasuna da, familia ezberdinetakoak direla monasterioa eraiki eta *familia* erlijioso bat osatzen dutenak.

7.5. *Ondorengotza estrategiak*

Aurrekoari lotuta, Nafarroako XI. eta XII. mendeetako herentziaren banaketaren inguruko erreferentzia nagusia 1112. urteko Erronkariko agiri bat izan da (Aparicio,

2021: 25), aldi berean salbuespena ere badena⁴². Interes berezia du, Erronkari ere haran piriniotarra delako. Dokumentu horretan *Garsias Manzek* eta *Eneco Manzek* bere arreba *Sanciari* ematen dizkiote Nabarzatoko jabetzak, bere etxe, lur, ortu, mugarte eta orokorrean jabetza guztiekin, baita, *Seios* herriko mahasti bat ere. Deigarriena da argi eta garbi xedatzen dutela jabetza horiek zatitzeko debekua:

vetamus autem tibi fortiter (...) ut nunquam istam donacionem nostram uendere aud partire audeas inter filios et filias tuas, nec ipsi filii post te audeant partire iam dictam hereditatem inter se, quo modo solet germanitas facere, set sit adunata et integra omni tempore; et ex ea fiat oblacio pro peccatis nostris et omnium parentum nostrorum ad monasterio quo est in ualle Roncali et est constructum in honorem Dei et beati Martini

Sancia hiltzean jabetza horiek bere seme-alabei ondorengotzan emango zaizkiela aurreikusten den arren, ondarea bere osotasunean mantentzeko nahia nagusitzen da, Zaraitzun bezala, orokorrean egiten denaren aurka. Funtzionamendua antzekoa da bietan, izan ere, ondasuna elizari lotzen zaio. Kasu honetan hartu-emanetarako bidea oblazioa da, Leireren menpeko Erronkariko Santa Martin monasterioari *Sanciak* urtero eman beharko diona. Badirudi, beraz, praktika horren bidez elizari lotzea ondasuna mantentzeko estrategia bihurtzen dela. Horrez gain, familia transmisio horietan, gizonezkoak dira besterentzeaz arduratzen direnak; Erronkarin anaiek ematen diote ondarea arrebari, eta Zaraitzun, osabak —gizonezko— ilobari.

7.6. Dohaintzak

Bestalde, garrantzitsua da ere dohaintza bidez monasterio nagusira lotzeko joera, benetako erdigunea Leireko monasterioa baita. Dohaintza horietan, orokorrean, elementu ekonomikoak, sinbolikoak, erlijiosoak eta politikoak nahasten dira (Aparicio, 2019: 108). Hau da, batetik, haien izaera erlijioso azpimarratu behar dugu; gehienak *pro anima* egiten dira, hau da, arimaren salbazioa eskuratzeko⁴³. Baina, noski, nagusitasun soziala bermatzeko tresnak ere badira, ospea erakustekoak, alegia. Testuetan aipatzen diren pertsonaiak biltzen dituzten ospakizun sozial handiei lotuta daude eta beraz, gizarte-mailan estatusa adierazteko balio dute. Horren adierazle argiena, ziur aski, Santa Maria monasterioaren kotsakrazioa da; haranera apezpikua iristen da, eta fundatzaileen familiak ohorezko kokapena eskuratzen du haren alboan.

42 DML 252.

43 Dohaintzak egiteko motibazio erlijiosoak Luis Javier Fortúnek modu sakonean aztertzen ditu Leireri buruzko bere lanean (1993: 260-265).

Ezin da ukatu, beraz, monasterioak gizarte-mailan duen rola, dokumentu hauetan ikusi dugun moduan, harreman-sareak eratzeko bidea baita; handikiak biltzen ditu, eta kanpo eragileekiko lotu. Funtsean, orokorrean, gizartea egituratzeko tresna da. Zaraitzuko haranaren kasuan, harreman-multzo horren eraketa eta kontsolidazioa modu argian ikusten dira dokumentuen azterketaren bidez.

8. Kanpo ereduakiko alderaketa

Behin Zaraitzuko XI. mendeko gizartera hurbilketa eginda, Nafarroa erdialdeko ereduarekin alderatu dugu. Era berean, Britainiako komunitateak ere landu ditugu, gizarte egituraketan nagusitzen diren ezaugarriak hobekiago zehaztu ahal izateko.

8.1. Nafarroa erdialdea: Aizpurgiko Arroila

Ikerketa honen luzerak mugatuta, elizen transmisioa azaltzen duten bi agiri aztertu ditugu, 1063. eta 1064. urtekoak⁴⁴. Biak Leireri egindako dohaintzak dira, haranaren hegoaldeko eremu batean kokatuak, Aizpurgiko Arroilan, hain zuzen ere.

Lehenengo Arbontzeko *domna* (hemendik aurrera andre) *Tota Lopizek* bere lau seme-alabekin (jaun *Garsia Ennecones*, jaun *Eximino Ennecones*, andre *Andregoto Ennecones* eta andre *Billiterekin*) batera egindako dohaintza da. Horren bidez, Leireko *Iohannes* apezpikuari eta *Belasio* prioreari Arbontzeko Santa Maria monasterioa ematen diote, bere lur, mahasti eta jabetza guztiekin batera. Gainera, monasterio horri Aizpurgiko Arroilan kokatutako San Kosme eta Damian dekania gehitzen diote.

Agirian ondasunen jatorria zehazten da. Berrero ere, argibide horiek familiaren egiturara hurbiltzeko balio digute, elizaren transmisioaren aldetik. Izan ere, *Totak* azaltzen du *monasterioluma domno Eximino* apezpikuarena izan zela. *Domno Eximinok* hiltzean jaun *Garsia Lopizi* eman zion, Biozalgo bere ilobari⁴⁵. *Garsia Lopizek*, gerora, *Totaren* seme jaun *Garsia Ennecones*, bere iloba, *adoptatu* zuen eta monasterioa eman zion, baita, Biozalgo jauregia ere. Hori horrela, *Garsia Enneconisek*, bere amaren aholkua jarraituz, ondorengotzan jasotakoa Leireri ematea erabaki zuen.

Interesgarria da agiriaren amaierako *regnante* klausula. Izan ere, erregeen, apezpikuen eta tenenteen artean dohaintza egiten duen *Garsia Ennecones* bera agertzen

44 DML 69 eta DML 72, hurrenez hurren.

45 Berrero ere, *nepote* hitzaren erabilera dugu. Beraz, iloba gisa hartu dugu izendatutakoa.

da, Elisuko *senior* gisa: *senior Garseas Ennecones iste qui cartam facit, in Elisu*. Alegia, gizabanako hau erregearen tokiko ordezkaria da. Orokorrean, haren familia baroien eliteko parte da.

Bestalde, jaun *Garsia Scemenonesek* eta bere emazte andre *Menciak* egindako dohaintza dugu, berriro ere, *domno Iohannes* apezpikuari eta *domno Belasio* prioreari zuzendua⁴⁶. Hain justu ere, Aizpurgiko Arroilan kokatutako Santa Kolonba monasterioa ematen diote, baita, monasterioaren lur, mahasti, mugarte, mendi, iturri, padura, eta jabetza guztiak ere. Gainera, bietako bat hiltzean, alargun gelditzen dena bizitza erlijiosora sartuko dela eta Santa Kolonbaren buru izango dela zehazten da. Ordea, hiltzean monasterioa Leireren eskutan gelditzeko nahia plazaratzen da.

Dohaintzaz gain, senar-emazteak hil osterako xedapenak ematen dira. Hau da, Gorozaingo, Aldeako eta Usteseko etxeen besterentzea ere ezagutarazten da, baita, beste jabetza batzuen ere. *Garsia* bere emaztea baino lehenago hilez gero, Gorozaingo etxea emaztearentzat izango litzateke, eta emaztean hiltzean, *Scemeno Garceiz* semearentzat. Aldeako eta Usteseko etxeak ere emazteari emango lizkioke, eta hura hiltzean, Leireri. Gainera, aipatutakoez gain, bien artean dauzkaten jabetzetatik erdia senarrari dagokiola zehazten da. Semeek emaztearen borondatea jarraituz gero, erdi horretatik erdia haientzat izango litzateke, eta bestela, guztia Leirerentzat. *Menciaren* azalpenak sinpleagoak dira: lehenago hilez gero, bere erdia eta bere aitarena (ezkonsaria, ziur aski) senarrari emango lizkioke, eta hura hiltzean Leireri. Beraz, ondorengotzaren transmisioaren eradura hurbiltzeko balio digu agiri honek.

Gainera, bi pertsonaien sinaduraren ostean agertzen den amaierako konfirmatzaile eta lekukoen zerrenda luzea da eta pertsonaia garrantzitsuak biltzen ditu. Hain zuzen, jada aipatutako Iruñako *Iohannes* apezpikuaz eta *Belasio* prioreaz gain, Calahorrako *Gomessanus* apezpikua, Aragoiko *Sancius* apezpikua eta San Juan de la Peña monasterioko *Belasius* abadea dira konfirmatzaileak. Bestalde, lekukoen artean zazpi *senior* daude, nahiz eta kasu honetan *Garsia Scemenones* ez den horien artean aurkitzen.

Badira, beraz, nabarmendu ditzakegun zenbait ideia. Hasteko, ikuspuntu terminologiko batetik, izendapenetan ezberdintasun nabariak ditugu. Izan ere,

46 DML 72.

aztertutako bi dokumentuetan pertsonaia guztiak *senior* eta *dompna* hitz bereizleen bidez izendatzen dira. Hortaz, haraneko kideekin alderatuz gero, pertsonaia horien maila sozioekonomikoa bestelakoa da, eta hori argi uzten dute bai izendapenek, baita kanpo eragileekiko dituzten loturek ere; 1063ko agiriko *senior Garsia Ennecones* Elisuko tenentea da. 1064ko dokumentuan, berriz, ospakizunera bertaratzen diren kanpo-agintarien kopurua Zaraitzuko kasuetan baino zabalagoa da.

Bestalde, haranean ez bezala, deigarria da emakumeen presentzia. Hau da, emakumeek elizen transmisioan duten parte hartzea handiagoa da. Lehenengo kasuan semea da jabetzak ondoretzan jaso dituen, baina bere amaren aholkua jarraitzen du horretarako. Gainera, aipatu moduan, dohaintza egiten dutenak ama eta lau seme-alabak dira. Bigarren agirian, *Garsia Scemenones* eta bere emazte *Mencia* dira egileak, baina baita besterentzen duten ondarea.

Interesgarria da ere, 1063ko agirian azaltzen den ondorengotzaren transmisioaren egitura, haraneko *Acenar* familiaren 1068ko dokumentua gogora ekartzen diguna⁴⁷. Izan ere, familiaren jabetza monasteriora lotzeko joeraz gain, eskualdaketa osabarengandik iloberengana egiteko ohitura errepikatzen da. Esan daiteke ere, bien artean lotura berezia ezartzen dela, *discipulo* gisa hartuta Aizpurgin edota *adozio* bidez Pirinioetan. Zentzu horretan, agirien arteko ezberdintasun handiena, ziur aski, transmisioa egiten duten pertsonaien izaera da. Haranean *dompno* kontzeptuaren bidez ezberdintzen diren pertsonaiak ditugu, baina Aizpurgin apezpikua bera da jabetzak jaun izendatutako ilobari ondorengotzan ematen dizkiona, eta hark berriro ere, beste jaun bati. Bereizketa argia da eta estuki lotuta dago emakumeek besterentzean duten esku hartzearekin. Haranean elizgizona da familiaren ondarearen ardura eskuratzen duena. Horrek zuzenean bertan behera uzten du emakumeek ondorengotzan parte hartzeko duten aukera. Ordea, Aizpurgin laikoa da eliza ondorengotzan jasotzen duena, eta horrek ez du emakumeen rola alde batera uzten. Dirudenez, ez da horren erabakigarria jabetza bloke osoen mantenua, ziur aski, horien tamaina handiagoa zelako, Pirinioetako jabegoekin alderatuz gero.

Orobat, jabetzen izaera eta tamaina ezin aldera daitezke. Bai haranean, baita, hegoaldeko eremuetan ere, monasterioak eta lurak dira Leireri emandakoak. Ordea, hegoaldean dekania bat, jauregi bat edota herri ezberdinetan zehar hedatutako jabetzak

47 DML 69 eta DML 84, hurrenez hurren.

gehitzen zaizkie. Posible da, haien estatusa kontuan hartuta, proportzioan txikiagoa izatea Leireri emandako ondarearen zatia. Dena den, ikerketa zabaldu beharko litzateke familia hauen jabetzak zehaztasunez ezagutzeko.

8.2. Komunitate mailako eliz-familiak: Britainiako eredia

Elizaren eta elizen jabeen betekizunaz Goi Erdi Aroko gizartean badira erreferentziazko ikerketak. Chris Wickhamek Pirinioetako eta Britainiako eliz-familiak (*priestly families*) aipatzen ditu, tokiko botere-eredu ezberdinak aztertzean (Wickham, 2006: 567). Hain zuzen, Wendy Davies (1998) da Britainiako kasua modu sakonean aztertu duen aditua. Tokiko mailan eliz-familiak zuten garrantzia, interesak eta funtzioak azpimarratu ditu.

Daviesen esanetan otoitzaren ardura zuen taldeak *plebs* guztietan funtzio berezia zuen, gainerako biztanleekiko ezberdina. Talde hori herri esparrukoa zen, zentzu guztietan: *plebensesen* zerbitzaria zen ikuspuntu erlijiosotik, eta jabetza-interes familiarak ere bazituen *plebsean* bertan. Hain zuzen, IX. mendean (eta ziur aski lehenago) *plebes* horietako askok zituzten elizak, eta haiei lotuta apaizak. Badirudi eliza gutxi zeudela jaunen eskuetan (Davies, 1998: 100).

Jabetza-interesek nekazari librean komunitateen gorengo mailan kokatzen zituzten elizgizonak, askotariko jabeak baitziren, halaber, mendekoen jabeak ere. Oro har, lursailak zituzten, komunitateko gainerako kideek bezalaxe, baina baita, errentak, gizabanakoak, elizak eta monasterioak ere. Beraz, nekazarien artean aberatsenetarikoak ziren, baina beraien interesak ez zetozen bat aristokraziarenekin. Epaileen moduan, beraien entzutea ez zen herrira mugatzen; badaude tokiko esparruaz gaindiko salerosketetan lekuko gisa agertzen direnak ere, baina ez bestelako jardueretan. Dena dela, gutxi ziren herritik kanpo jabetza-interesak zituztenak (Davies, 1998: 100-102).

Jabetza-interes horiei lotuta, salerosketak aipatu ditzakegu, baina baita, besterendutako ondarearen kontrol indibiduala edota partekatua, familiako gainerako kideekin. Ondorioz, ohikoak ziren familiaren jabetzaren banaketaren inguruko eztabaidak. Izan ere, kleroaren familia-interesak ez ziren jabetzetara mugatzen, apaizgora ere zabaltzen ziren; semeak aita ordeztu ohi zuen. Apaizen artean anaiak zein lehengusuak ere aurki daitezke. Dударik gabe, funtzio espirituala ere bazuten, horren adierazleak urriak diren arren (Davies, 1998: 100-101).

Osotasunean, gorengo mailako kideak ziren eta funtzio bereziengatik ezberdintzen ziren. Herri mailan zuten rola oso aktiboa zen, eta beraien jarduera ezinbestekoa zen komunitatearen funtzionamendurako; horien artean, negozioetarako gaitasuna aipa daiteke, askotan bizilagunen alde erabiltzen zutena. Baina beste talde sozialek baino kapital likido gehiago zutenez, nekazarietat mailegu emaileak ziren, eta nekazarien jabetzak mailegu horien bermetzat hartzen zituzten. Kasu gehienetan, horri esker lurak bereganatzen zituzten. Era berean, komunitateko kideen salerosketetan berme gisa agertzen ziren. Horretarako, jakina, maila ekonomikoa beharrezkoa zen. Baina bestelako rolak ere bazituzten; eskriba lanetan aritzen ziren tokiko agirietan, edota lekuko gisa, baita epaiketetan ere. Beharbada, eztabaiden konponketan jarduten zuten. Hala ere, ez ziren inoiz epaileak. Azken ideia hori bereziki deigarria da, komunitateen egunerokotasunean zuten garrantzia gorabehera, ikuspuntu formal batetik ez zutelako inoiz horretarako aukera izan (Davies, 1998: 101).

Haatik, Daviesen esanetan, 830eko hamarkadatik aurrera egoera aldatu zen, apaizak Redon monasterioari haien jabetzak ematen hasi zirenean, erretirorako eremu bat gordetzekotan. Helburua ez da horretan sakontzea, baizik eta ulertzea, familietan eztabaidak sortu zituela horrek, herri mailan zuten eraginak behera egin zuela eta ziur aski, urrutiratu egin zituela apaizak gainerako biztanleengandik (Davies, 1998: 102).

Dena den, Daviesen lanak balio digu, modu orokorrean bada ere, Britainiako eliz-familien funtzionamendua ezagutzeko, eta tokiko mailan zuten garrantzia ulertzeko. Hain zuzen, gure kasua berantiarra goa izan arren, badaude bi kasuetan errepikatzen diren ezaugarriak.

Batetik, elizen inguruan antolatzen diren familien nagusitasun soziala. Wickhamek berak dio elizak tokiko elitearen boterearen oinarrietako bat zirela, ekialdean lehenago, eta mendebaldean IX. mendetik aurrera, bai, Britainiako eliz familietan, baita, elizak sortzen zituzten Pirinioetako talde handien kasuan. Era berean, herriko lurren jabetzaren eta herri mailako boterearen arteko lotura nabarmentzen du (Wickham, 2005: 567-568). Bietan, komunitateko kideak dira elizen sortzaileak, jaunren presentzia mugatuaren aurrean. Hala ere, gainerako herritarrengandik bereizi daitezke, haien interesak eta funtzio ezberdinak medio. Gure kasuan, *don* edo *dompno* hitzaren erabilera bereizketa horren adierazle argia da.

Familien interesen arabera jokatzeko joera ere ikusten da, ondorengotzari eta apaizgoari dagokionean. Hain zuzen, helburua bi kasuetan antzekoa da, elizaren jabetza mantentzea, eta horri lotuta, elizgizon funtzioa, dela apaizarena Britainian, dela monjearena, Pirinioetan. Britainiako kasuan ohikoagoa da aita- seme transmisioa. Pirinioetan, *Acenar* familia adibidetzat hartuta, badirudi, semeetako bat elizgizon izendatzen dela generazio bakoitzean, eta osabagandik ilobarengana egiten dela transmisioa. Zentzu horretan, deigarria da, bigarren momentu batean, monasterio nagusira lotu izana. Ikerketa zabaldu beharko litzateke gure eremuan horrek izandako eraginak ezagutzeko.

Azkenik, ordezkari lanetan eliz-familiak zuten rola azpimarratu behar genuke. Bitartekari rol hori tokiko mailan ez ezik, esparru supralokalean ere antzematen da. Britainiako apaizen kasuan, agerikoena inguruko komunitateetako salerosketetan lekuko gisa agertzea da. Pirinioetan, haranari dagozkion negozioetan nabarmentzen da funtzio hau, 1072ko agirian bezala, baita, kanpo eragileekiko harremanetan ere.

9. Ondorioak

XI. mendeko Zaraitzun, argi dago iparraldeko herrietakoak direla harana ordezkaten dutenak goi-mendietarako sarbidea jokoan dagoenean. Dena den, monjeek bitartekari gisa identifikatutako gizabanakoak eremu jakin batetik datozela ondorioztatu ahal izan dugu. Dohaintza gehienak Eskaroze eta Jaurrieta herrietako ondasunenak dira, baina horiez gain, Orontzerekiko eta Espartzarekiko lotura ere nabaria da. Beste modu batera esanda, badirudi, agirietako kideen presentzia esparru horretan zehar zabaltzen dela. Gainera, lau herri horietakoak dira 1072ko dokumentuko lekuko gehienak. Irizpide berari jarraiki, otsagabiarrek haranaren egituraketan duten garrantzia nabarmena dela pentsa daiteke, Leirerekin harremanak ez dauden arren. Beraz, haran-mailan Leireren kontrola ahulagoa den eremua da komunitatearen bihotza osatzen duena.

Aipatu dugunez, Leireren pertzepzioa, hau da, Zaraitzuko eremu horri lotutako agiriak batera biltzea eta kontserbatzea, nagusigo sozialaren oinarrietako bat da. Azpimarragarria da, ordea, Leireri lotutako pertsonaia horiek ez direla jaunak, hegoaldean ez bezala. Kasu gehienetan ez da tankera horretako izendapenik erabiltzen. Aldiz, ohikoagoa da, *dompno* hitzaren erabilera, elizgizonei erreferentzia egiteko erabilia. Bestalde, emakumezkoen aipamenak bereziki urriak dira.

Leireko eskriben ikuspegiaz gain, gizabanako horien jabetzak kontuan hartu behar ditugu, batez ere, monasterioak eta sarobeak. Britainian bezala, Pirinioetan, elizen inguruan antolatutako kideak dira nagusigo soziala dutenak. Hain zuzen, ondasun horiek Leirerekin erlazionatzeko bitartekoak ere badira. Hau da, kide horiek dohaintza bidez monasterio nagusira lotzen dira, eta ospakizun horietan kanpo eragileekiko harremanak finkatzen dituzte. Izan ere, ordezkariak ere badira, bai haran-mailan, baita, tokiko esparrutik at ere. Esku hartze hori bereziki nabaria da inguruko baliabideetarako sarbideari dagozkion auzietan. Azkenik, ondorengotza estrategiak ere aipatu behar genituzke. 1068ko agirian monasterioa Leireri eman arren, ondarea bere osotasunean mantentzeko nahia antzematen da. Antzeko funtzionamendua da Erronkarin hautematen dena: monasterioari lotzeko joera eta ondasunek osorik jarraitzeko nahia. Beharbada, mekanismo horiek ondarearen zatiketa ekiditeko estrategien hastapen gisa har daitezke.

Posible da, beraz, aztertutako ezaugarriak gerora nagusituko den ideologia berdinzalea sortzen den gizarte antolaketaren lehen zantzuekin lotzea. Ikerketa zabaldu beharko litzateke, ordea, inolako baieztapenik egin baino lehen. Bitartean, esan dezakegu egindako azterketari esker XI. mendeko Zaraitzuko gizartea apur bat sakonkiago ezagutzeko aukera izan dugula.

9. Irudien aurkibidea

1. Irudia: Zaraitzuri buruzko dosierra Becerro Antiguoa.....	11
2. Irudia: agirietako kideen adierazpen grafikoa.....	13
3. Irudia: Zaraitzu Haraneko eragile-taldeak.....	18
4. Irudia: 1072ko agiriko Zaraitzuko kideak.....	20

10. Bibliografía

- Aparicio, Andrea. (2019). Negociar la familiaritas. Estructuras y estrategias familiares en el reino de Pamplona (siglos XI y XII). In Blasco, Almudena. eta Vergés Oliver (ed.), *Estudis sobre els orígens de la noblesa medieval al nord-est peninsular (segles X-XII)* (107-142.orr.). Andorra: Anem Editors.
- Aparicio, Andrea. (2021). ¿Incumpliendo la norma? Costumbre y práctica familiar entre los grupos dirigentes del reino de Pamplona (siglos XI y XII). *Reti Medievali* (22), 1, 1-33. orr.
- Davies, Wendy. (1988). *Small Words. The Village Community in the Early Medieval Brittany*. London: Duckworth.
- Fagoaga, Blas. (1962). Datos para la geografía histórica del euskera en Navarra. *Euskera*, 7, 205-213. orr.
- Goñi, José (1997). *Colección diplomática de la Catedral de Pamplona. Tomo I (820-1243)*. Iruña: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Saila.
- Lacarra, José María. (1945). Textos navarros del Códice de Roda. *Estudios de la Edad Media de la Corona de Aragón*, 1, 193-283. orr.
- Lacarra, José María. (1957). *Vasconia Medieval. Historia y Filología*. Donostia: Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa.
- Larrea, J. J. (2000). Notas sobre los orígenes del poblamiento del valle de Salazar (Navarra). In Berthe, M. eta Cursente, B. (ed.), *Villages Pyrénéens. Morphogenèse d'un habitat de montagne* (195-207. orr.). Toulouse: CNRS - Université de Toulouse - Le Mirail.
- Larrea, Juan José. (2005). Comunidades, puertos, infanzonías. Estado de la cuestión y algunos interrogantes sobre el devenir social y económico del Pirineo navarro-aragonés en la Edad Media. In Maroto, Julià; Ramió, Sònia eta Ripoll i Perelló, Eduard (ed.), *Medievalis Historia Pyrenaica. II congreso Internacional de Historia de los Pirineos* (47-77. orr.). Girona: UNED.
- Larrea, Juan José. (2009). Construir un reino en la periferia de al-Andalus: Pamplona y el Pirineo occidental en los siglos VIII y IX. In Fernández Conde, Francisco Javier eta de García de Castro Valdés, Cesar (ed.), *Symposium Internacional:*

- poder y simbología en la Europa altomedieval. Anejo, 2* (279-308. orr.). Oviedo: Territorio, Sociedad y Poder.
- Larrea, Juan José. (prentsan). A propósito del sistema feudal. Diversidad de facetas y coherencia estructural entre el Cantábrico, el Pirineo y el Ebro. In Martín Viso, I. eta Díaz Martínez, P. C., *Los procesos de formación del feudalismo. La Península Ibérica en el contexto europeo*. Madril: CSIC.
- Lema Pueyo, José Ángel. (1994). Una conveniencia entre San Juan de la Peña y los pobladores del Valle de Roncal: enero de 1111. *Nafarroako Kondairaren Hirugarren Batzarre Orokorra*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Martín Duque, Ángel. J. (1983). *Documentación Medieval de Leire (siglos IX a XII)*. Iruña: Nafarroako Foru Aldundia (Vianako Printzea Erakundea).
- Martín Duque, Ángel. J. (2002 [1963]). La Comunidad del Valle de Salazar. Orígenes y evolución histórica. *Principe de Viana*, 227, 635-666. orr.
- Wickham, Chris. (2005). *Framing the Early Middle Ages: Europe and the Mediterranean, 400-800*. Oxford: Oxford University Press.

11. Webgrafia

Nafarroako Estatistika Erakundea. (2020). *Población por sexo y grupos de edad, según municipios y según zonas de Navarra 2000*. Kontsulta data: 2020/05/20. Eskuragarri:

[https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/](https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=1)

[informacionestadistica.aspx?R=1&E=1](https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=1)

Gran Enciclopedia de Navarra. (n.d.). *Salazar; valle*. Kontsulta data: 2020/05/20.

Eskuragarri: http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=18034